

# USVreact

UNIVERSITIES SUPPORTING VICTIMS OF  
SEXUAL VIOLENCE

#USVreact  
[www.usvreact.eu](http://www.usvreact.eu)



CEPS Projectes Socials  
Barcelona



US  
University of Sussex  
Centre for Gender Studies



Universidad  
del País Vasco  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIVERSITÀ  
DEGLI STUDI  
DI TORINO  
ALMA UNIVERSITAS  
TADRENTINENSIS



UNIVERSITAT  
DE VALÈNCIA



Co-funded by the Rights,  
Equality and Citizenship  
Programme of the European Union

Europar Komisoak USVreact proiektua (JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401) aldi berean finantzatu du. Argitalpen zein komunikazioak egileen ardurapean baino ez daude eta Komisia ez da informazio honekin egin zitekeen erabileraren erantzule.



# UNIBERTSITATEAK INDARKERIA SEXUALAK BIZI DITUZTEN PERTSONAK SOSTENGATZEN

(Universities Supporting Victims of Sexual Violence)

## Prestakuntza eredu iraunkorrak sortzen

Londoneko Brunel Univesity-k koordinatzen duen ikerketa proiektu honetan Europako **zazpi herrialde** eta **zazpi bazkide** nagusik eta elkartutako beste horrenbeste bazkidek hartzen dute parte.

Proiektuak diseinatuko dituen **formazioak iraunkorrak bilakatzea** dugu ikerketaren xedea, berau amaitu eta gero prestakuntzak indarrean jarrai dezan.

**Tokian tokiko praktikak aztertuko** ditugu, gure testuinguru kultural zein instituzionalerako egokiak izango diren formakuntzak diseinatzeko asmoz.

Unibertsitate bakoitzak prestakuntza eredu bat jarriko du martxan. Prestaketa honetan unibertsitate bakoitzeko **80 pertsonak** hartuko dute parte eta bazkide bakoitzak sortutako prestakuntza eredu ebaluatuko du.

Ebaluazio hauen bitartez sortutako ikaspenak bazkideen artean partekatuko ditugu. Bestalde, formazio **ereduak web orrialdean eskuragarri** egongo dira, inongo kosterik gabe.

USVreact  
proiektuaren helburua  
unibertsitateko  
pertsonala indarkeria  
sexuala antzeman  
eta bat-bateko  
erantzuna gauzatzeko  
prestakuntza  
eskaintzean datza.

Proiektu hau 2016ko martxoan abiatu genuen eta 2017ko azaroan itxiko dugu Londonen, emaitzak aurkeztu eta eztabaidatzeko antolatutako konferentzian.

Gurekin kontaktatzeko:

UPV/EHU: [marta.luxan@ehu.eus](mailto:marta.luxan@ehu.eus), [jokin.azpiazu@ehu.eus](mailto:jokin.azpiazu@ehu.eus)  
Proiektuaren kordinazio orokorra: [pam.alldred@brunel.ac.uk](mailto:pam.alldred@brunel.ac.uk)